



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2019KO EKAINAREN 19AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Igor Zapirain Lizarribar EH BILDU
Nagore Zubillaga Garmendia EH BILDU
Luis Lasa Muñagorri EH BILDU
Agurtzane Arribillaga Uranga EH BILDU
Aitor Jimenez Iparragirre EH BILDU
Cristina Martinez Arnaiz EH BILDU
Maria Iciar Jauregui Huarte EAJ-PNV
Juan Luis Cid Conde EAJ-PNV
Rodrigo Vilar Caballero Arellano EAJ-PNV
Juan Maria Caballero Arellano EAJ-PNV
Felix Asensio Robles PSE

IDAZKARIA :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hemeretzi**ko ekainaren **hemeretzi**an arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak ez-ohiko bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Igor Zapiraion Lizarribar alkate jauna izan zen, eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- Alkate ordearen izendapena eta eskuordetzen diren eskumenen inguruan ebatzirikoko Alkate Dekretuen jakinarazpena**
- 2.- Alkatea eta zinegotzia liberatzea eta hauen ordainsari erregimena erabakitzea**

2019/06/19



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA:

1.- ALKATE ORDEAREN IZENDAPENA ETA ESKUORDETZEN DIREN ESKUMENEN INGURUAN EBATZIRIKO ALKATE DEKRETUEN JAKINARAZPENA

Kontuan harturik Tokiko Antolamenduaren 7/1985 Legearen 20. Artikuluan xedatutakoa, alkate ordeak udalerrri guztietan egon behar dutela, 262/2019 Alkate Dekretu bidez, Nagore Zubillaga Garmendia izendatzen da lehen alkateorde bezala.

Kontutan harturik Tokiko Antolamenduaren 7/1985 Legearen 23. Artikuluan xedatutakoa, Alkateak bere eskumenak eskuordetzeko ahalmena duela, 263/2019 Alkate Dekretu bidez, Nagore Zubillaga Garmendia zinegotzia Gizarte zerbitzuetako zinegotzi delegatu bezala izendatzen da eta dekretuan zehazturiko eskumenak eskuordetzen zaizkio

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

BIGARRENA

2.- ALKATEA ETA ZINEGOTZIAREN LIBERATZEA ETA ORDAINSARI ERREGIMENA ERABAKITZEA

7/1985 Legearen 73,75, 75 bis eta 75ter artikuluek eta 2468/1986 Errege Dekretuaren 13 artikuluan aipatutakoari jarraiki, legeldi honetarako lanaldien eta ordainketen erregimen hau proposatzen da:

1.- Denbora osoko lanaldiak

1.1 Alkatea lanaldi osoan

Alkateak bere kargua %100ko lanaldian egingo du. Bere urteko ordainsari gordina 54.294,66 eurotako izango da.

Tokiko Korporazioetako kideen ordainsariei buruz Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Administrazioetako eta Funtzio Publikoko departamentuko Erregimen Juridikoko Zuzendari Nagusiak 2015eko ekainaren 11n emaniko txostenaren arabera, Lurralde Historikoak gaiaren erregulazioa osatzen duen artean Udalei dagokie, beren egoera ekonomikoa kontutan hartuz, beren korporatiboen ordainsariak osatzea, errespetatuz, edozein kasuan, Estatuko Legedian ezarritako oinarri eta egitura. Soldata ezartzeko erabiltzen dugun proposamena 7/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019. Urterako Aurrekontu Orokorrak

2019/06/19



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

onartzen dituen. Proposamen honetan, 2001-5000 biztanleko udalerrietan, ordainsarientzako muga Eusko Jaurlaritzako zuzendariarentzako ezarritako ordainsarien %15eko baliokidean ezartzea proposatzen da. Zuzendariaren urteko zenbatekoaren %15 67.757,90 euro dira. Ondorioz, 54.294,66 eurotako soldatak ez du gainditzen aurrikusitako kopurua.

Ikusi dira 2019ko ekainaren 18an Kontuhartzaileak eta Idazkariak egindako txostenak.

Ordainketa hauek dagozkion zerga betebeharreri lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira. Alkatearen ordainsaria 2019ko ekainaren 20tik aurrera egingo da (ondorioz ordainketa burutu ez bada atzeraeraginkortasunez aplikatuko da), egun horretan eman baitzizaion Gizarte Segurantzari alta.

1.2 Nagore Zubillaga Garmendia zinegotzia lanaldi osoan

Alkateak Nagore Zubillaga Garmendia zinegotziak bere kargua %100ko lanaldian egitea proposatzen du. Ikusita Gizarte zerbitzu eta sailen ardurak egokitu zaizkiola eta Alkateak eskumenak eskuordetu dizkiola ezinbestekoa da %100 lanaldian lan egitea. Bere urteko ordainsari gordina 40.908,34 eurotako izango da.

Tokiko Korporazioetako kideen ordainsariei buruz Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Administrazioetako eta Funtzio Publikoko departamentuko Erregimen Juridikoko Zuzendari Nagusiak 2015eko ekainaren 11n emaniko txostenaren arabera, Lurralde Historikoak gaiaren erregulazioa osatzen duen artean Udalei dagokie, beren egoera ekonomikoa kontutan hartuz, beren korporatiboen ordainsariak osatzea, errespetatuz, edozein kasuan, Estatuko Legedian ezarritako oinarri eta egitura. Soldata ezartzeko erabiltzen dugun proposamena 7/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019. Urterako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen. Proposamen honetan, 2001-5000 biztanleko udalerrietan, ordainsarientzako muga Eusko Jaurlaritzako zuzendariarentzako ezarritako ordainsarien %15eko baliokidean ezartzea proposatzen da. Zuzendariaren urteko zenbatekoaren %15 67.757,90 euro dira. Ondorioz, 40.908,34 eurotako soldatak ez du gainditzen aurrikusitako kopurua.

Ikusi dira 2019ko ekainaren 18an Kontuhartzaileak eta Idazkariak egindako txostenak.

Ordainketa hauek dagozkion zerga betebeharreri lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

Ordainketa hau, 2019ko maiatzaren 20tik aurrera egingo da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Guztia kontutan izanik, Udalbatzak, 7 aldeko botorekin (6 BILDU eta PSE 1) eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea Igor Zapirain Lizarribar, Ibarra Alkateak, 100% lanaldian liberatu bezala jardutea eta bere urteko soldata gordina 54.294,66 eurotako izatea.

BIGARRENA.- Onartzea Nagore Zubillaga Garmendia, Gizarte zerbitzuetako zinegotzi delegatuak, 100% lanaldian liberatu bezala jardutea eta bere urteko soldata gordina 40.908,34 eurotako izatea.

HIRUGARRENA.- Soldata hauen ordainketa, 2019ko ekainaren 20tik aplikatuko dira, egun honetatik aurrera Ibarra Udalean alta emango baita.

LAUGARRENA.- Izendapen hauen berri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailatza departamentuari eta pertsonal administrariari.

PSE-ko zinegotziak hitza eskatzen du eta adierazten du berain aldeko botuaren arrazoia dela Eudelek esandakoa betetzen duela soldata hauek ezartzeak eta aldi berean gestio publikoko karguak betetzen dituzten pertsonak ez dutela inolako gabeziarik izan behar. Hau da, gestio publikoan jarduteak ez duela aurretik izandako lanpostuetan zeuden baldintzak gutxitu behar, modu honetan, baloraturik ez dagoen lan honi ere balio bat ematen zaiola.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeitaz direnean. Nik, idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2019/06/19